

Antxiñako fotografixak

Apaolaza alarguna kalia dala-eta

LAGUN batek galdetu dost Oñatiko kale horren izendapena noizkua dan eta zergatik jarri xakon andra baten izena. Izan be, gure artian kale, plaza edo bestelako eraikuntza oso gutxi dagoz emakumiak gogoraketako edo harein omenez jasotakuak. Ba, kale horren historixia be kurioso samarra da. Batetik eta bestetik informaziñua batu ondoren, ondorixo honeittara aillergau naiz:

Gerraosteko bigarren-hirugarren hamarkadan etxe eta auzo barrixak egittiari hasi xakonian, lehenenguetako multzo bat Santa Marina plazatik Matingora bittarteko lur-sail horretan eraiki zan, hau da, gerora *Avenida del Generalísimo* eta orain *Euskadiko Etorbidea* izenez ezaguketan dogun inguru horretan; etxegintzarako egogixak ziran soro eta ortu lauetan. Matingua Kale Barrixa eta Bidaurretako komentuaeren artian eguen kale-baserri bakar-tixa zan. Eta hasierako planetan etxe-pilla hori Matingo-poligono lez agerketan xaku. **Matin-gua** izeneko kale-baserri horren jabia Etxaluzeko señoria zan: **Maria Irizar Aginaga**. Baina baserri hori eta aldameneko terrenuak ez ezik, Mariarena zan bere etxe ostean eguen lora-tegi-ortu ederra be, gaur egun J. L. Lazarraga, A. Lizarralde eta M. Zelaia kalien artian geldiketana dan hiri-eremu zabala. Badakizue, **Etxaluze** Kale Barriko akaberan eguen etxe dotore samar bat zan, Zubillaga Azpiko baserritik Ameriketara fandako indiano batek, jaixoterrira bueltau zanian, XIX. gizaldixan jaso eragin eben bizitzaia.

Maria Irizar 1905ian ezkondu zan **Frantzisko Apaolaza Azkarate** mediku bergararrarekin. Frantziskok, bere aitta Anteroren eragiñez-edo, euskerazko poema batzuk idatzi ei zittuan gaztetan. Oñatin mediku egon zan urterik gehixenetan kontsulta partikularra euki eben Etxaluzen, traumatologia eta ginekologia espezialidadetan. Gerria amaittu eta laister hil zan, 1940xan. Haren alarguna, baiña, beste hoge bat urtian bizi izan zan, eta Etxaluze eta inguruetako lurak herrixari oso kondiziño onetan itzi otsan, lehen aittatu dittugun etxe-poligonuak egitteko. Eskerrak emun alde, orduan zabaldu zan kalietako bateri señoriaren izena emutia erabagi eben herriko kontzejuak. Baiña, dirudienez, etxekoandriak bere jatorrizko izenaren orde *Apaolaza alarguna* jartia eskatu eben. Dana dala, 50 urte pasau eta gero, ez ete da heldu kale horri tokaitten xakon izena ifiintteko ordua? Hau da, **Maria Irizar kalia**. Fotografixetan Maria eta Frantzisko andragizonak nahiz Etxaluze zaharrak 1970eko hamarkadaraiño eukan itxuria ikusi geinke. Bota aurretik, azkeneko urtietan Etxaluzeko eraikuntza hori agustiñuak eta Oñatiko ospitalak ebali euen, hurrenez hurren.

Maria Irizareri gerraostian urte askuan, **Bixi Ziaurritz** tolosarrak, Oñatin *Señorita Bixi* moduan ezagutu gebenak, eta **Luisa Mary** bere neskamiak lagundu otsain. Bixi Doroteo Ziaurritz politiko jeltzale ezagunaren arrebia zan eta Etxaluzeko etxekoandriarekin senidetasuna eukan. Gerra aurretik **Enrike Elortzak** be (*Enrike Etxaluzek*) Kale Barriko etxetzar haretan euki eben bere bizilekua. Baiña gerrako zurrunbilluan, hirurogei urtetik gora izan arren, Iparraldera hanka egin bihar izan eben eta han hil zan 1939ko bagillian Lurbe-St. Christau Pirinioetako herritxuan, Oloroetik hurrian.

J. E.

Argazkixak Iñaki Ormazabalek eskuratutakuak dira. Argibidiak, berriz, Jabier Galartzak, Pilar eta Maixabel Maiztegik, Nieves Aiastuik eta Xabier Ugartek samurtu doskue. Milla esker guztioiri!

